



ZARAUZKO UDALA

EUSKARAREN EGUNA 2019

PEGATINA LEHIAKETA

OINARRIAK

- 1. Gaia:** Euskararen egunarekin edo euskararekin lotura izan beharko du.
- 2. Parte hartzaileak:** Zarauzko ikastetxeetako DBHko ikasleak. Banakako lanak izango dira eta norberak gehienez ere hiru lan aurkeztu ahal izango ditu.
- 3. Lana:**
 - Norberak sortutakoa eta inon argitaratu gabea izan beharko du. Irudia ez ezik, leloa ere eramango du.
 - Irudia zuri-beltzean nahiz koloretan egin ahal izango da.
 - Neurria: 12x16 cm-ko neurria izango du (lauki zuzena).
- 4. Aurkezteko epea:** Lanak **azaroaren 8a** baino lehen Euskara Departamentuan aurkeztuko dira.
- 5. Epaimahaia:** Euskararen Eguneko koordinazio batzordea osatzen duten irakasleek eta Udaleko ordezkariak epaituko dituzte lanak. Bereziki erreparatuko diete gaiaren trataerari eta leloaren originaltasunari. Epaimahaia **azaroaren 13an** elkartuko da erabakia hartzeko.
- 6. Sariak:**
 - 1. Saria: 100 euroko txartela euskarazko kultur produktuak erosteko.
 - 2. Saria: 75 euroko txartela euskarazko kultur produktuak erosteko.
 - 3. Saria: 50 euroko txartela euskarazko kultur produktuak erosteko.
- 7. Sari-banaketa:** Euskararen Eguneko egitaraua aurkezten den egunean izango da, **azaroaren 21a**, eta irabazleen argazkiak, izen-abizenak eta lanak hedabideetara bidaliko dira.
- 8. Argitaratzea:** Lan saridunarekin, pegatinak argitaratuko ditu Udalak, eta ikasleen artean banatuko ditu Euskararen Egunean erabiltzeko. Euskararen Eguneko egitaraua diseinatzeko ere baliatuko da lan sariduna.
- 9. Oharrak:** Lanarekin batera, egilearen datuak adierazi beharko dira: izen-abizenak, helbidea, telefono zenbakia, posta elektronikoa eta ikastetxea.

